

UNIBERTSITATEKO
JAKINTZA ARLO NAGUSIETAKO TERMINOLOGIA
BILTZEKO LAN-PROPOSAMENA

2000.eko abenduan

Xabier Kintana Urtiaga

Atarikoia

Euskaltzaindiak amaitu berri du Oinarrizko Hiztegi Batuaren lehen itzulia. Bildu dituen 20.000 hitz horiek, oro har, literatur tradizioan oinarrituak dira, eta maiztasun handia duten berbak ditugu. Bestalde, begien bistan dago onarturiko hitz horiek duten garrantzia, hortik atera daitezkeen hitz elkartu eta eratorri ugari askotarako abiapuntu direlako, eta hori jadanik ongi islatzen da argitaratze-enpresa batzuek kaleratu dituzten beste hiztegi batzuetan.

Oinarrizko hiztegi hori, ordea, neurri handian, euskaldunok oraintsu arte izan dugun bizimodu tradizionaleri dagokie, hots, giza harremanak, artzaintza, nekazaritza, arrantza, eskulangintza, merkataritza eta erlijioa bezalakoei. Dakigunez, gure hizkuntzaren ofizialtasunik ezaz, euskarak sarrera berantiarra izan du irakaskuntza, administrazio eta hedabideen munduan eta, beraz, aski normala da arlo horietako lexikoa aurrekoak bezain landurik ez aurkitzea.

Halere, garbi dago azken hamarkadetan euskarak lehenago izan ez dituen arlo horietara ere heldua dela eta gero eta jende gehiagok diharduela gure hizkuntzaz esandako eremuotan. Eta, horrek, jakina, etengabeko zalantzak eta duda-mudak sortzen dizkie erabiltzaileei, irakasle-ikasleei batik bat. Alde horretatik, egoki litzateke Euskaltzaindiak premia hori dutenei nolabaiteko laguntza eskainiko balie, orain arte ere, beste eremu batzuetan maiz egin duenez. Izan ere, gure Akademiaren izateko arrazoi nagusia hizkuntza zaintzea da, baina hizkuntza ez da deus, berari bizia ematen dioten hiztunez ahantziz gero.

Irakaskuntzari doakionez –beste arloak biltzeko proposamenak Euskaltzaindira duela bi hilabete aurkeztu zirenez gero– gogoan izan behar dugu ez garela ezerezetik abiatzen. Ofizialtasuna izan baino lehenago ere, hirurogeiko hamarkadan ikastolak, gerra aurreko saio labur eta berehala moztu haien ondoren, indar berriaz birpiztu eta Euskal Herri osoan zehar hedatu ziren, lehen eta bigarren mailako irakaskuntza euskaraz emateko asmoz.

Hasiera ez zen erraza izan. Garai zaharrek utzia ziguten testu-liburu ia bakarra *Xabiertxo* ezaguna zen eta irakasleek ahalegin handia egin behar izan zuten hutsune hori betetzeko. Lan horretan lagundu nahirik, Euskaltzaindiak bere 8 urte arteko ikastola hiztegia prestatu eta eskaini zuen, gure Akademiak gizarte premietarako zeukan sentiberatasuna orduan ere erakutsiz.

Hiztegitxo hura, bere on-txar guztiekin ere, lagungarri eta mesedegarria izan zela ezin uka, baina laster urri gelditu zen. Irakaskuntza aurrera joan ahala, gero eta gai berri gehiago ukitu beharra zegoen eta Euskaltzaindiak –euskararen batasunaren auzian murgildurik, bestalde– ez zuen baliabiderik asko premia berri horiei nahi bezala erantzun ahal izateko.

Beharrak zaharra merkatura baina, eta arazoa irakasle interesatuek berek konpontzen saiatu behar izan zuten, zenbait antolakunderen laguntzaz. Alde horretatik, ez da ahanzteko U.Z.E.I.k egindako lan mardula, unibertsitate arloko hiztegi monografiko ezagun bezain erabiliak plazaratuz. Udako Euskal Unibertsitateak ere lan ederra eskaini zuen, ordurarte, Euskal Herriko Unibertsitaterik ezaz, sakabanaturik zeuden arlo ezberdinetako irakasle-ikasleei elkartu eta zientzi gaiak euskaraz tratatzeko aukera ematean.

Giro horretatik, ondoren Elhuyar eta Lur taldeak sortu ziren, Entziklopediak eta irakaskuntzarako testu- eta kontsulta-liburuak plazaratuz. Azkenean, autonomia politikoak gure hizkuntzari ekarri zion ofizialtasunak, gainera, euskararen eta euskarazko irakaskuntzak merkatu zabala ireki zuen eta horrek ordurarte gurean erdara hutsean argitaratzen zuten beste enpresa batzuk (Santillana, Anaya, Edelvives, Edebe...) euskal alorrean sartzera bultzatu zituen, bertoko ordezkarietzan euskal taldeak antolatuz (Zubia, Haritza, Giltza) eta aldi berean bertoko beste editorial batzuk sortu ziren (Ibaizabal, Elkar, Erein...) euskal testugintzan lehiakidetzan interesgarria eraginez.

Bestalde, unibertsitateari dagokionez, behialako Bilboko Unibertsitatearen oinarrien gainean 1980an UPV/EHU sortu zenean, euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofizial bilakatu zen eta unibertsitatearen estatutuetan bertan euskarazko testugintza bultzatzeko asmoa argi agertu zen: Horrela, 246. artikulua honela dio: “Unibertsitateak euskaraz egindako irakaskuntza-materialak eta ikerlanak argitaratzeari eragin eta bultzatzea egingo dio”; horretarako duen Argitalpen Zerbitzuen bidez egin eta egiten duena, hain zuzen.

Gogoan izan behar da, bestalde, Euskal Herriko Unibertsitatea bera era-itu aurretik ere, bazela Leioan irakasle talde bat beren kontura, zientzien arloko irakasgai batzuk (fisika, kimika, biologia, matematika...) euskaraz ematen hasiak, horretarako apunteak eta liburuxkak prestatuz. Horiexek erein zuten, hain zuzen, unibertsitateko euskal irakaskuntzaren hasierako hazia eta, horren ondorioz, irakasgai horiek harrezkero hogeitaz hamar urte baino gehiagotan irakatsi dira gurean euskaraz inolako etenik gabe, Euskal Herriaren historia osoan goi mailako irakaskuntzan ordurarte inoiz lortu gabeko tradizioa eta segida erdietsiz.

Noski, anitz arlo berritan aurretiko askorik eta tradizio atxikigarririk ez zegoenez gero, jakintza gaiak irakasteko erabili behar zen lexikoari dagokionez, borondaterik onenaz egindako saio guztiek ez dute arrakasta bera izan. Gogoan izan ordura arte deus gutxi zegoela euskaraz argitaraturik zientzia arloan Jean Etxeparek mendearen hasieran osasunaz eginikoak eta Jokin Zaitetik RIEVen (1933, 61) zelulari buruz idatziriko artikulua kenduta, Gabriel Jauregi arabarraren *Pisia* (1935) eta *Kimia* (1936) zirela aitzindari bakarrak. Hori dela eta, unibertsitate-premiei erantzun nahirik, hasieran asmatu hitz batzuk, denboraren arian praktikak berak baztertu eta berba egokiagoek ordezkatu dituzte. Gehienetan, ordea, ongi asmatu zutela aitortu beharra dago. Edonola ere, interesgarriena, irakasleen beren jarrera izan da, euskara kontuan beti ikasteko prest eta beren lana Euskaltzaindiaren arauekin bat berregokitzeko gertu azaldu dira eta.

Esandakoagatik, beraz, badugu hor, irakaskuntza ertain eta unibertsitarioan, arlo zabal bat, aspaldiko urteotan aski ongi landua, Euskaltzaindiak bere hiztegi batuaren bigarren itzulian kontuan hartu behar lukeena.

Lan egiteko prozedura

Irakaskuntzan erabiliriko euskal lexiko berezia biltzeko, ondoko prozedura hau proposatzen da.

Alde batetik koordinazio-taldea eratuko da, EHUan lanean ari garen Xabier Alberdik, Iñaki Ugarteburuk, Juan Karlos Odriozolak eta Xabier Kintanak osatua. Talde honen zeregina ikastegietatik heltzen zaizkion hitz zerrendak aztertu eta sailkatzea izango da, hitz bakoitzaren forma zuzena eta lekukotasunak egiaztatuz.

Gaur egun, oro har, unibertsitate mailako euskal irakaskuntza nagusia UPV/EHUan gertatzen bada ere, ez da ahantzi behar badirela gurean beste unibertsitate batzuk ere (Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate pribatua, Nafarroako Unibertsitatea Publikoa, Mondragon Unibertsitatea eta Baionako Unibertsitatea) eta horiekin ere, eskaintzen duten euskarazko irakaskuntzaren garrantziaren arabera, harremanak izatea aurriztatu da.

Era berean, koordinazio-taldeak harremanak izango ditu Euskaltzaindirako lan egiten duten beste bi taldeekin, hots, komunikabide eta zuzenbide-administrazio arloko lexikoa biltzen dutenekin, diziplinarteko hitz berezien kasuan horiei informazioa eman, kontsultak egin, argibideak eskatu, zalantzak azaldu eta, ahal den neurrian guztion artean proposamen bateratuak aurkeztu ahal izateko.

Informatzaileak

Informatzaileak edo hitz-biltzaile aholkulariak Unibertsitateko Jakintza Arlo desberdinetako irakasleak izango dira. Hauek, arlo bereko beste euskaldun irakasleekin bildu ondoren, beren jakintza arloko adar ezberdinei dagozkien hitz berezi beharrezkoenak bilduko dituzte. Horretarako, koordinatzaileek hitz horiek hautatzeko eta aurkezteko metodologiako arau zehatzak bidaliko dizkiete aurretik, terminologia horren garrantzia, maiztasuna eta bateratze-maila kontuan izan dezaten, beti ere Euskaltzaindiak bigarren itzuli honetako hitzetarako onartu dituen irizpideekin bat. Hitz horiek, beren testuiguru eta lekukotasunez horniturik, koordinatzaile-taldeari igorriko dizkiote.

Irakaskuntza Ertainari dagokionez, badirudi bigarren itzuli honetan EEBS corpusetako datuek aski ongi biltzen dutela arlo horretako lexikoa, eta, beraz ez dela beharrezkoa hor gehiago sakontzea. Edonola ere, hor argibide edo daturen bat beharko balitz, Jose Ramon Zubimendi prest legoke bere laguntza eskaintzeko, Hezkuntza Saileko Ikasmaterialetan aditu gisa.

Unibertsitateak argitaraturiko terminologia liburua

Irakasle elebidunak hautatzeko, Euskal Herriko Unibertsitateak 1988. urtetik aurrera euskara-probak egin izan ditu, horien bitartez irakaslegaien hizkuntza gaitasuna neurtzeko. Proba horiek errazteko asmoz, unibertsitateak 1998an *Euskara-probak* izeneko liburua argitaratu zuen. Hor arlo desberdinetako terminologia zerrendak eskaini zituen, euskal irakaskuntzan ari ziren irakasleengandik jasoak, maiztasuna, garrantzia eta erabilgarritasuna kontuan izanda. Arlo bakoitzetik ehun bana hitz, oro har.

Liburu horrek dagoeneko hiru argitaraldi izan ditu, Euskaltzaindiaren arauak plazaratu ahala terminologia zuzendu eta eguneratuz. Unibertsitatearen aspaldiko erabileran finkaturiko hitzok, beraz, terminologia bilketa-lan hau egiteko oinarritzat har daitezke.

Hitz horiek ondoko jakintza arloei dagozkie:

Arkitektura, Artea, Biologia, Ekonomia, Filologia, Filosofia, Fisika, Geografia Geologia, Historia, Gizarte Zientziak, Heziketa Fisikoa, Informatika, Informazioa, Ingeniaritza-Teknologia, Kimika, Matematika, Meatzaritza, Nautika, Osasuna, Pedagogia eta Psikologia. Bada Zuzenbidea ere, baina arlo hori, administrazioarekin batera, Andres Urrutiak eta bere taldeak beren gain hartu dutenez gero, ez dugu guk ukituko.

Egitekoa

Informatzaileei, zeinek bere arloan, liburu horretan agertzen diren berbak kontuan izanda, guztira berrehun bana hitz proposatzeko eskatuko zaie, goian esan den bezala, horiek hautatu eta aurkezteko arau zehatzak ahoz eta idatziz aurretik emanaz.

Hitz-zerrendak bidaltzeko epea martxoaren bukaeran amaituko da.

Ondoren, koordinazio-taldeak Euskaltzaindiak bigarren itzuli honetarako irizpideak kontuan izanda, jakintza arlo bakoitzean euskarazko irakaskuntza-tradizioaren pisua gogoan izanik, jasoriko zerrendetako hitzak aztertu, galbathetu eta, bere kasuan zuzendu eta gero, Euskaltzaindiko Euskara Batuko batzordeari bidaliko lizkioke, hala baleritzo, onartzeko proposamenarekin.

Lan hau udarako amaiturik egon liteke, baina arlo ugari direla kontuan izanik, zuhurrago dirudi atzerapen batzuk gerta daitezkeela pentsatzea. Edonola ere, kasurik txarrenean, udazkenerako amaituko litzateke.

Kostuaz

Oinarriz, lan horretan ari diren guztiak UPV/EHUko langileak dira eta zeregin honetan beren lan-orduen barruan lihardukete. Beraz, alde horretatik ez da inolako diru-kosturik aurreikusten. Horrek ez du esan nahi, noski, Euskaltzaindiak, esker onez, haiekin nolabaiteko kortesia ez izatea, (aipamen edo diplomaren bat, afariren bat...). Inoiz gerta daiteke baina, koordinazio-bileraren bat Donostian eta Gasteizen egin beharra, horrek aldean dakarkeen bidaia-dieten gastu txikiekin, baina edonola ere oso gutxi izango lirateke.

Azken oharra

Badira, goian aipaturikoez gain, beste arlo batzuk, gure irakastegietan ematen ez diren arren, gogoan izan beharrekoak: albaitaritza, arrantza, astronomia, edo erlijioa, adibidez. Kasu horietan euskaltzainek, norik bere lanbide, interes edo zaletasun berezien arabera, nolabaiteko bilketa-proposamenak ere egin litzakete.

* * *

Informatzaileentzako gutuna

Adiskidea:

Zure jakintza arloko euskal lexikoari buruz hitz egin genuenaren bidean, gutun honen bidez gogoratu nahi dizut hiztegitxo berezitu hori biltzeko orduan, kontuan izan behar diren irizpideak, lan egiteko metodologia toki guztietan antzekoa izan dadin: Horrek, zer esanik ez, gure koordinazio lana erraztu egingo du.

1) Guztira berrehun hitz inguru izango dira, eskuarki zuen arloan erabiliak.

2) Jakintza arloaren barruan multzo edo atal ezberdinak egonez gero, hitz horiek eremu ezberdinen artean banatuko dira, eskaintzen den lexikoan azpiarlu guztiek nolabaiteko lagin orekatua izan dezaten.

3) Proposatzen den hitza multzo edo berba-konstelazio jakin baten osagarri izanez gero, komeni da multzo horretako gainerako kide nagusiak ere aurkeztea, lagina orekatua izan dadin. Gauza bera esan daiteke antonimo nabarmenez ere. Adibidez: *joniar / doriar / korintoar* (Artean), *belarjale / haragijale / orojale* (Biol.), *defizit / superabit* (Ekon.), *likido / solido / gas* (Fis.), *antiklinal / sinklinal* (Geol.), *erreforma / kontrarreforma* (Hist.), *branka / popa / lababor / istribor* (Naut.)

4) Hitz horiek gutxieneko tradizioa izan beharko dute, hau da, ez dira atzo goizean asmatuak izango, eta jakintza arlo horretako erabiltzaileen artean aspaldiko urteotan ezagunak eta zalantzarik gabe onartu eta adostuak izango dira.

5) Proposatzen diren hitz horiek ongi dokumentaturik aurkeztuko dira, bai testuinguru egokian eta bai orain arte non erabili izan diren argi azalduz (liburu, liburuxka, entziklopedia, apunte...). Aldamenean erdarazko itzulpena edo euskarazko azalpena izango dute.

6) Nazioarteko hitzak badira, hori azaldu behar da, inguruko hizkuntzetako ordainekin (espainiera, frantsesa, ingelesa, alemana, adibidez). Kasu hauetan ez da beharrezkoa euskarazko testuen lekukotasuna ere jartzea.

7) Komeni da hitz horiek bi multzotan banatzea: a) garrantzitsuenak eta b) garrantzizkoak izanik ere, bigarren mailako kontsidera daitezkeenak. Garrantzitsuenen artean, jakintza-arlo konkretu horretakoak izateaz gainera, eguneroko bizitzako hizketara ere iragan direnak jarriko dira (*akupuntura, elea-niztasun, estres, euro, farmako, fisioterapeuta, flotagailu, homeopatia, trilobite...* gisakoak).

8) Bildu dituzuen hitz bereziak proposatu aurretik komeni da Euskaltzaindiak oraintsu atera duen hiztegian berba horiek ba ote datozen ikustea,

hala izanez gero, horien lekuan beste kontzeptu batzuk adierazteko hitz ez jarriak proposatu ahal izateko.

9) Euskaltzaindiaren hiztegian agertzen ez diren hitzez gainera, aurretik forma onartua duten beste batzuk ere proposa daitezke, adiera bereziren bat dutenean; adibidez, *adar*. ‘animalien eta zuhaitzen kima’ esanguraz gainera ‘aulkiaren edo ohearen atzeko irtengunea’. Era berean, azpisarrera interesgarriak ere proposa daitezke: *ahaide nagusiak*, *elur-jasa* adibidez.

10) Hitzak letra xehez eta mugatu gabe jarriko dira, hau da, *mendi*, *etxe*, *zuhaitz* gisa, eta ez *mendia*, *etxea*, *zuhaitza* itxuran. Era berean, alfabetoaren arabera ordenaturik aurkeztuko dira.

11) Zuen lana errazteko asmoz, honekin batera zerrenda bat bidaltzen zaizue, EHUak argitaraturiko Euskara-Probak liburuan zuen arlorako proposatu diren hitzekin, eta horietatik Euskaltzaindiaren zerrendan **letra beltzez** zeintzuk agertzen diren azalduz, alferreko errepikatzerik egin ez dadin.

12) Eskertzekoa litzateke zuen zerrendak paperean eta disketean UPV/EHUko Euskararako Kabinete Teknikora bidaltzea.

13) Bidaltzeko epea 2001.eko otsailaren bukaeran amaituko da.

14) Edozein zalantza izanez gero, Xabier Kintanagana jo dezakezue.

Hitzen lekukotasunak jasotzeko, gai bakoitzari buruzko liburu berezitzuez gainera, besteak beste, iturri orokor hauek ere kontsulta daitezke:

UZEI-ren hiztegi monografikoak.

Placido Mujikaren *Diccionarios Castellano-Vasco* eta *Vasco-Castellano*.

Diccionario Retana de autoridades del euskera.

KOLDO MITXELENAREN *Orotariko Euskal Hiztegia*.

2000 hiztegia.

Euskararako hiztegia.

IBON SARASOLAREN *Euskal Hiztegia*.

Lur Entziklopedia.

Euskal Hiztegi Entziklopedikoa.

Elhuyar hiztegia...

Adibide gisa, hona hemen proposamen-hitzak aurkezteko eredu batzuk:

adar. Euskaltzaindiak aipatzen dituen 4 esangurez gainera, 5 ‘aulkiaren edo ohearen atzeko irtengunea’ eta 6 ‘zapata estuak janztera laguntzeko esku-tresna, eskuarki metalezkoa’ erants daitezke. Ikus *Orotariko Euskal Hiztegia*.

latin arrunt = herri-latin: **latin** hitzaren azpisarrera gisa sartzeko. Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*, latin hitzean, 1996. *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, 1995, *Elhuyar hiztegia* 1996. UPV/EHUko Euskara-probak liburua, 1999, 47.orr.

Burdin Aro: **burdina** hitzaren azpian sartzeko, Ikus **erdi** hitzean **Erdi Aro** azpisarrera. Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*, **aro** hitzean. *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, 1995. *Elhuyar Hiztegia* 1996. UPV/EHUko Euskara-probak liburua, 1999, 55. orr.

hego-ekialde eta hego-mendebalde: azpisarrera gisa sartzea komeni da, **ipar-ekialde** eta **ipar-mendebal(al)de** hitzekin egin den bezala.

nukleiko: Azido nukleikoak nukleotidoen polimeroak dira. Bi mota daude, nukleotidoaren azukrea zein den kontu... Kimika 1 *Hiztegia*, UZEI 1980 68 orr. *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, 1995. *Elhuyar Hiztegia*, 1996. orr.

erreakzionario: Hist. nazioartekoa. esp. *reaccionario*, fr. *réactionnaire*, ing. *reactionary*, al *reaktionär*.